



Comunicado de la manifestación de Tudela

(22 de octubre de 2022)

Arratsalde on. Eta eskerrik asko gaur euskararen aldeko mobilizazio honetan parte hartu duzuen guztioi, Nafarroako euskaldunen hizkuntza eskubideen alde eta Nafarroa osoan euskaraz ikasteko eta askatasunez bizitzeko aukerak oztopatzen edo ezabatzen dituen zonifikazioaren aurka.

hordago! herri dinamika joan den urteko azaroan aurkeztu zen, Cortesen, eta adierazpen baten bidez Erriberako herritar talde handi batek erran zuen bazela unea “edozein nafarrek Nafarroa osoan euskara ezagutu eta erabiltzeko eskubidea praktikan jartzea eragozten duten oztopo guztiak gainditzeko, edozein lekutan egonda ere”.

Gaur hemen elkartu garenok, **hordago!**-ren deialdiaren inguruan, euskaldunak gara, edo gure seme-alabak D eredura eramaten ditugu, edo heldutan euskara ikasten ari gara, edo ikasteko asmoa dugu, edo, bertzerik gabe, —aurrekoetatik ezer ez izanda ere— euskara nafar izatearen parte gisa ikusten dugu, eta, horregatik, ozen eta argi aldarrikatzen dugu euskara Nafarroa osoko hizkuntza dela, Cortestik Berara; Vianatik Gardera; pasando por Altsasu, Pamplona y Tuterá; Montaña, Zona Media, Erribera entera.

Tuteratik ezin da bertzerik gabe erran euskara alemana, ingelesa edo frantsesa bezain errespetagarria denik. Noski badela. Noski badirela. Baina Tuteratik erran behar da, eta argi erran behar da, euskara —hiru hizkuntza horiek ez bezala— Nafarroako berezko hizkuntza dela, ezin dela Nafarroa euskara gabe ulertu, eta ezin dela euskara Nafarroa gabe ulertu; eta Tuterá Nafarroa baldin bada, euskara ere bere hizkuntza dela.

Eta Tuterá erraten dugun tokian Erribera erraten dugu. Eta Erribera erraten dugun tokian Nafarroa osoa erraten dugu.

Gaur, **hordago!** jo nahi diogu zonifikazioari, diskriminazio iturri delako, desberdintasun iturri delako, nafarrak bereizteko iturri delako. Beraz, gaur eta hemen, zonifikazioaren aurka joatea justizia sozialaren alde egitea da.



Nafarroan inolako bereizkeriarik gabe bizi nahi baitugu, baita arrazoi linguistikoengatik sorturiko diskriminaziorik gabe ere. Denok berdinak izanen garen lurralde batean bizi nahi dugu; berdinak betebeharreran, berdinak eskubideetan; eta lurralde horretan eskubide berdinak izanen ditugu une orotan, Nafarroaren zein zatitan gauden kontuan hartu gabe. Herritarren kohesioa sustatuko duen herria izanen da hori; herritarrak hizkuntzaren arabera mailakatuko ez dituen; hizkuntzen aniztasuna mehatxu gisa hartuko ez duena, aberastasun gisa baizik.

Nafarroako hizkuntza zonifikazioaren mapa ikusi bertzerik ez dago egiaztatzeko zentzugabea dela, ez duela ez hanka eta ez buru. Gaur Tuteran gaude, “eremu ez-euskalduna” deitu zuten horretan. Baina Cortesen egon gitezkeen. Edo Faltzesen. Edo Aiegin. Edo Noainen. Edo Urraulgoitin. Edo Kasedan. Edo Vianan. Edo Fiteron.... Leku horietan guztietan nafar euskaldunak daude, edo euskaldun izan nahi dutenak, edo beren seme-alabak euskaldun izatea nahi dutenak, baina zonifikazioak nahiko traba jartzen dizkie hori eragozteko. Areago, leku horietan zonifikazioak guztiz ezkututzen du euskararen existentzia bera. Izanen ez balitz bezala.

Eta, bai, existitzen da. Eta, bai, bada.

Zonifikaziorik gabeko etorkizunaren alde egin nahi dugu. Bereizkeriarik, segregaziorik edo eskubideen urraketarik gabeko etorkizun baten alde; lurraldea eta gizartea euskararekin, edo bertze arrazoiren batekin zatikatuko ez duten etorkizun baten alde. Ildo horretan, Nafarroako hizkuntza-banaketa gainditzea aurrerapen handia izanen da gure gizartearendako, aurrerapena izanen da justizia sozialean eta gure lurraldearen batasunean eta kohesioan. Azken finean, nafar guztiondako aurrerapena izanen da.

Gora euskara!

hordago!